

Toponimia nagusiaren lekukotasunak Prudencio de Sandoval Iruñeko apezpikuaren 1614ko Katalogoan

ANDRES IÑIGO

Prudencio de Sandoval, Valladoliden sortu zen 1551n. Beneditar fraide egin eta zenbait komentutan egon ondoren, horien artean Naiarakoan, Tuy elizbarrutiko apezpikua izendatu zuten. Bere azkeneko zortzi urteetan, 1612tik 1620ra, Iruñeko apezpikua izan zen.

Iruñera etorri eta handik bi urtera, 1614an, argitara eman zuen liburuaren izenburu osoa honako hau da: *Catalogo de los obispos, que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona, desde el año de ochenta, que fue el primero della el santo Martyr Fermín, su natural Ciudadano. Con un breue sumario de los Reyes que en tiempo de los Obispos Reynaron en Nauarra, dando Reyes varones a las demas Prouincias de España.* 166 orri ditu eta 232 orrialde¹.

Liburuaren izenburuan adierazten den bezala, P. Sandovalen helburua Iruñeko elizak 80. urtetik 1614. arte izan zituen apezpikuen historia azaltzea izan zen eta, horrekin batera, Nafarroak urtemuga horretara arte izan zituen erregeena ere. Egileak transkribatzen dituen latinezko testuak² dira lanaren oinarri eta, testu horien inguruan edota horietaz gain, berak gaztelaniaz gehitu

¹ Nire esker ona *Katalogo* honetan ageri den onomastika aberatsaz konturatuta, liburu eskura jarri zidan Joxe Aleman irakaskide ohiari.

² “Hago vn memorial de la dignidad sacra, ministros consagrados, Christos vngidos, dignos de memoria desta Santa Iglesia, que Dios, por ser quien es, me encomendò (si bien indigno de ser entre ellos contado.) Dirè con breuedad, lo que con certidumbre pudiere descubrir. Quedaràn muchos fuera deste Catalogo, que la gran antiguedad, mudança de Reynos, corriente de tiempos, han puesto en oluido. [...] Dirè de camino los reyes, que en vida de los Obispos Reynaron. No lo que hizieron, porque no huuo quien lo escriuiesse: ni lo que otros han escrito, sino lo que hallare mas memorable, y con puntualidad del tiempo. Sacado todo de sus escrituras. Con que se darà algun fabor à esta breue memoria Pontifical, y para adorno, real” (1 atz., 2). Aitzinago dio “Desde el año de 80. hasta el de 589. no hallo Obispo de Pamplona, ni memoria de Iglesia, mas de la que dirè, no porque la ciudad no los tuuiesse [...] sino porque no huuo quien los escriuiesse ni dexasse memoria dellos: ni tampoco porque en esta Prouincia tan estendida, desde los montes Pyrneos, hasta los de Oca, y

zituen azalpen eta iruzkinak. J. Goñi Gaztanbideren iritziz, liburuaren bene-tako egilea ez zen Sandoval izan. Honek transkribatuak aurkitu zituen latinezko testuei gaztelaniazko itzulpenak eta zenbait iruzkin gehitu eta bere ize-nean argitara eman zituela dio Goñik. Honela dio zehatz-mehatz:

«El catálogo, comenzando por el título, no es más que un plagio de un *Catalogus episcoparum ecclesiae Pampilonensis*, escrito poco después de 1573 por un canónigo de Pamplona, que hemos creído poder identificar con Francisco Cruzat y que Sandoval se cuida muy bien de no citar ni una sola vez. La aportación de Sandoval se limita en esta obra a poner en castellano defectuosamente lo que el *Catalogus* dice en latín, a las noticias de los reyes de Navarra, a las biografías posteriores a 1573 y a varios documentos citados por el *Catalogus*, que Sandoval reproduce literalmente»³.

Nolanahi ere, latinezko testuetako transkripzioen egiletasun kontua alde batera utzita, aberatsa da lan honetan azaltzen den onomastika, antroponimia nahiz toponimia. Uste dugu interesgarria dela ageri den toponimia nagusia batik bat, bai Nafarroakoa, bai inguruko probintzia batzuetakoa ere. Gainera, guk dakigula behintzat, orain arte argitaratu diren toponimia historikoaren lanetan, ez da liburu honen lekukotasunik eman. Bertan ageri diren toponimo batzuk dira, hain zuzen, txosten honetan aurkeztu nahi izan ditugunak, zenbait toponimoren euskal ordaina hobeki ezagutzeko edota lehendik ezagutzen direnak egiaztatze argigarri direlakoan.

Interesgarriak dira Goi Erdi Aroko (IX-XII mendeetako) latinezko testuetan ageri diren lekukotasunak eta adierazgarriak gaztelaniazko azalpenetan erabiltzen dituen zenbait herriren izendapenak. Latinezko testuak direla eta, kontuan izanik P. Sandovallek transkribatu zituen agiri franko J. Goñi Gaztanbidek 1997an argitara eman zuen *Colección diplomática de la Catedral de Pamplona 824-1243* liburuan ere ageri direla, jaso ditugun izen gehienetan bi egile hauen lekukotasunak erkatzen saiatu gara, eta egiaztatu ahal izan dugu ez dutela beti jatorrizko testuaren irakurketa bera egin, erraterako 1007ko agiritik *Verrio Zahar* jaso zuen Sandovallek eta *Berrio Zahar* Goñik. Bi egile hauen lekukotasunekin batera, osagarri gisa, gure aldetik artxiboetako ikerketetan jaso ditugun berzte zenbait izenen berri ere eman dugu oin-oharreko azalpenetan.

Azkenik, Sandovalen liburuan ageri diren zenbait azalpen bitxi ere txertatu ditugu oin-oharretan, argigarriak iruditu zaizkigulako batzuetan eta bereziki bitxiak bertze batzuetan.

nacimiento del rio Hebro faltassen Chistianos, sino porque la persecucion terrible de los Emperadores Romanos, fue tan cruel y sangrienta que no dexaua lucir al nombre de Christo" (6).

³ Goñi (1987: 249-250).

Erreferentziatzko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea ⁴ eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Agoitz		<i>Aggoyz</i> , 1016, 22 ⁵ .	<i>Ahoiz</i> , 1093, 79 ⁶ ; <i>Aoyz Uidea</i> , 1241, 519 ⁷ .
Antzin		<i>Ancinz</i> , 1007, 30 ⁸ .	<i>Ancinç</i> , 1007, 28.
Araitz		<i>Araynz</i> , 1007, 30.	<i>Araynç</i> , 1007, 28 ⁹ .
Arrasate	<i>Arrasate</i> , 21 atz. ¹⁰ .		
Arre	<i>Arre</i> , 2 atz. ¹¹ .		

⁴ Agiriaren urte zehatza ageri ez denean, mendea jarri dugu parentesi artean.

⁵ “... Senior Fortun Aggoyz de Pampilona [...]”. XI. mendean ageri zaigu euskaraz erabiltzen den formaren lekukoa, oraintsu arte *-g-* dun forma hori berri samarra dela uste izan bada ere. Hala dio, behintzat, Belaskok (1996: 73): “la forma *Agoi(t)z* es relativamente moderna” eta baieztapen horren lehenbiziko lekukotzat 1702ko *Agoiz bidea* ematen du.

⁶ “... infra terminos [...] de Ahoiz [...]”.

⁷ “Alia vinea est in termino de Aoyz Uidea [...]”.

⁸ “... Monasterium Santi Christofori iuxta villam, quae dicitur Anzinz et Rigun de Ega cum omni sua pertinentia [...]”. 1007ko testua transkribatzean *-inz* amaierarekin jaso dute bai Sandovalak bai Goñik.

⁹ 1007ko testua transkribatzean tarteko *-n-* jaso dute bi liburuetako egileek, baina Goñiren liburuko 213. orrialdean ageri den 1142-1159 urteen arteko testuan *Arayç* dator.

¹⁰ (El rey don Sancho el Sabio) “... hizo vn fuerte Castillo en la Guipuzcoa llamado Arrasate, sobre el lugar que agora llaman Mondragon, y en aquel tiempo, era esta fuerza inexpugnable”. 1614an 924. urteko gertaerak aipatzen.

¹¹ “En el lugar de Arre, que es una legua de Pamplona, encima de Villaua, en vna cañada ò valle, donde fenecen las faldas de los montes Pyrineos, se hallaron vnas laminas de bronce muy bien labradas y escritas con letras Romanas grandes, que como mal aduertidos y poco curiosos, deshizieron”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Artzabaltzeta		<i>Arçaualceta</i> , 1007, 29 atz.; 1097, 74 atz.	<i>Arçaualceta</i> , 1007, 28 ¹² ; <i>Arçaualçeta</i> , 1087, 68; 1205-1209, 396.
Asiain	<i>Assiayn</i> , 102 ¹³ .		
Atarrabia	la casa de <i>Atarrauia</i> , 132 ¹⁴ .		<i>Atarrauia</i> , 1226, 467 ¹⁵ .
Badoztain		<i>Vadozstayn</i> , 1007, 29 atz.	<i>Badoçtayn</i> , 1007, 27 ¹⁶ .
Baiakoa	<i>Bayacoa</i> , 26 atz ¹⁷ .		

¹² “Iuxta villam que dicitur Artzacoçt flumen Arga, monasterium quod dicitur Arçaualceta cum sua hereditate quam habet et deinceps habuerit, et cum ecclesis de Orindoyñ et de Artaçu”.

¹³ “Don Migvel Sanchez de Assiayñ Obispo de Pamplona [...], natural de Assiayñ, pequeño y dichoso pueblo (como un Betleem), pues del salieron tan grandes varones”. Hala dio Sandovalék 1350. urteko gertaerak aipatzen ari denean.

¹⁴ “... vino de Estella el dicho obispo (Don Antonio Manrique) a la casa de Atarrauia [...] el Cabildo fue à visitarlo à Villaua [...]”. 1575. urteaz ari den testu honek, argi uzten du Erdi Aroan ez ezik, geroago ere Atarrabia Villavako etxe bat zela.

¹⁵ “... nos R., Dei gratia Pampilonensis episcopus, concedimus uobis S., priori hospitalis Rocideuallis, et omnibus fratribus eiusdem loci tam presentibus quam futuris, ut construatis oratorium in domo uestra de Atarrauia, saluis decimis et primitiis et omnibus aliis iuribus ecclesie Sancti Andree de Bilava, in cuius territorio predictum oratorium construetur [...]”.

¹⁶ 1007ko testua transkribatzean ez datoz bat Sandoval eta Goñi. Azken honena zuzenagoa dela ematen du, *-doyz-* forma hori ez baita inoiz agertu Jimeno Juriok eta bertze zenbaitek herri honi buruz argitara eman ditzuzten lekukotasun zaharretan.

¹⁷ XI. mendean Sancho Garces eta doña Toda izeneko errege-erreginak Leireko monasterioari eman zioten “... en la valle de Ybargoiti, un Monasterio llamado Bayacoa [...]”. Patxi Salaberrik jasotako datuen arabera, *Bayaçoa* 1585ean eta *Baiacoa* 1827an Irunberrin kokatzen den topónimoa da.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Basabotz	<i>Basabotz</i> , 93 ¹⁸ ; <i>Bassabotz</i> , 95.		
Beasoain		<i>Verasoain</i> , 1044, 70 ¹⁹ .	<i>Beasoayn</i> , 1175, 303.
Berriozar		<i>Verrio Zaharr</i> , 1007, 29 atz. ²⁰ .	<i>Berrio Zahar</i> , 1007, 27.
Bidasoa		<i>Vidaso</i> , 1007, 30 atz. ²¹ .	<i>Bidasso</i> , 1007, 29.
Bilbilis	<i>Viliuio</i> , 78 ²² .		

¹⁸ “... termino de Basabotz, cercano à Nabardum [...]”.

¹⁹ “... Lethe cum suis terminis, et de illa arca de Verasoain usque ad pelagum rotundum de Anoz [...]”. Kontuan izatekoa da XI. mendeko lekukotasun zaharren honek bokal arteko *-r-* daramala.

²⁰ Grafian bat ez badatoz ere, forma bera jaso dute Sandovalak eta Goñik.

²¹ Bertze zenbaitetan bezala, hemen ere ez dira erabat berdinak bi egileen transkripzioak: “... usque ad flumen quod dicitur Vidaso et aliud flumen quod dicitur Deua [...]” (Sandoval), eta “... usque ad flumen quod dicitur Bidasso et aliud flumen quod appellatur Deua [...]” (Goñi). Bietan, ordean, argi ageri da ibai honen formarik zaharrenak ez daramala amaierako *-a*.

²² “... Viliuio o Calatayud [...]”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Burdaspal ²³	<i>Vrdaspal</i> , 15 atz ²⁴ ; <i>Hurdaspal</i> , 15 atz.; <i>Vrdaspalense</i> , 15 atz. ²⁵ ; <i>Hurdaspal</i> , 16 ²⁶ .		<i>Urdaspal</i> , 1178, 311.
Donostia (Ikus Izurun)	<i>S. Sebastian</i> de Guipuzcoa, 21 ²⁷ , 166; <i>S. Sebastian</i> , 87, 140 atz. ²⁸ .	<i>sanctum Sebastianum</i> , 1097, 142 ²⁹ .	

²³ Horrela dago arautua *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lanean. Lan horretan *Urdaspal* forma ez da ageri ez sarrera gisa ezta lekukotasunetan ere. Burgi herriko *Burdaspal* sarreran ematen den azalpen historikoan, ordea, honela dio: “Antiguo monasterio situado entre Burgui y Roncal, uno de los visitados por S. Eulogio a mediados del siglo IX [...]. Aparece también con la grafía Burdaspal”. (XIV: 40). Zer dela-eta “aparece también” azalpen hori? Ez dago ulertzerik ez bada egiaztatzen *Gran Enciclopedia de Navarra-n Udaspal* dela sarrera eta sarrera horretan ematen den azalpen historiko berbera letraz letra kopiatu dela. Ikusten ahal den bezala, Sandovalak ez du *Urdaspal* bertzerik erabiltzen, nahiz eta, ematen duenez, *Burdaspal* izan formarik zabalduena eta egun erabiltzen dena (Lopez-Mugartza 2008: 378).

²⁴ “Estaua este Monesterio Igalense en el lugar que agora se llama Igal, dos leguas de Vrdaspal y cerca de Vidangoz en Val de Salaçar [...]”.

²⁵ “... Dadilano Abad del Monesterio Vrdaspalense [...]”.

²⁶ “Otro (Monesterio) san Saluador de Hurdaspal, ya muy arruynado, en Valderoncal, cerca de la villa de Burgui [...]”. Horrela dio Nafarroak 851. urtean Pirinio aldean zituen monasterioen berri ematen ari delarik.

²⁷ La villa de S. Sebastian de Guipuzcoa (conquistada por Sancho Garcia), “... le dio los fueros que hoy día tiene, y el nombre en lengua Canabarra de Hizurum, que quiere decir tres agujeros, por las tres entradas que esta villa tiene para el mar. Tambien hizo vn fuerte Castillo en la Guipuzcoa llamado Arrasate, sobre el lugar que agora llaman Mondragon, y en aquel tiempo, era esta fuerza inexpugnable”.

²⁸ “En Guipuzcoa; en la villa de San Sebastian, el Monasterio de S. Bartolome, de Monjas Agustinas”.

²⁹ “... ad sanctum Sebastianum in Ripa maris”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Ejea	<i>Exea</i> , 78, 82.	<i>Exee</i> , 1155, 151 atz. ³⁰ ; <i>Exce</i> , 1155, 152.	<i>Esseie</i> , 1086-1094, 63; <i>Exeia</i> , 1087, 67; 1129, 166; <i>Esseia</i> , 1103, 116; <i>Exseie</i> , 1121, 142; <i>Esscee</i> , 1144, 220; <i>Exee</i> , 1155, 250.
Elizaberria		<i>Liçabarriae</i> , 1143, 147 atz.; <i>Liçauerrie</i> , 1144, 149; <i>Liçaberria</i> , 1146, 150; 1155, 153; <i>Eliçaberria</i> , 1191, 160.	<i>Lizaberria</i> , 1148, 229 ³¹ .
Errezil		<i>Erretzil</i> , 1007, 30 ³² .	<i>Erretzil</i> , 1007, 28; <i>Errizil</i> , 1186-1193, 327.
Erriberri	<i>Olite</i> , 99, 102 atz., 107, 109, 112, 117; <i>Olit</i> , 117 atz.; <i>Olitb</i> 137 atz.		<i>Erriuerria</i> , 1119, 137 ³³ .

³⁰ “... Ecclesiam de Exee [...]”.

³¹ “... dono et concedo Sancte Marie de Lizaberria et vobis, quod faciatis molinos in illo riuo de Iuero [...]”. Oltza zendeako Izkue herrian aurkitzen zen Erdi Aroan *Elizaberria* monasterioa.

³² Kontuan hartzekoa da 1007ko testuaren transkripzioan bi egileek *Erretzil* forma afrikatua jaso izana.

³³ “... carta donationis Sancte Marie de Erriuerria, quam ego Lupus de Arrayz Deo et Sancte Marie de Pampilona dono quartam partem [...]”. Testuak ez du argi adierazten nongoa den Santa Maria “de Erriuerria” hori. Dena dela, Garibaik eta Oihenartek XVI-XVII. mendeetan aipatzen duten *Erriberri* bera baldin bada, kontuan izatekoa da Goñik ematen digun lekukotasun honek XII. mendean kokatzen duela.

Erreferentziazko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Errioxa	<i>la Rioxa</i> , 10 ³⁴ , 24 atz., 25 atz., 26, 64, 65, 66 atz., 69 atz., 71 atz., 85, 87; <i>Rioxa</i> , 45, 95 atz.		
Erroibar ³⁵	<i>Valderro</i> , 117 atz., 138 atz.		
Erronkaribar	<i>Valderoncal</i> , 16.		
Ezkaba		<i>serra de Ezcaba</i> , 1007, 29; <i>Ezchaua</i> , 1007, 29.	<i>Ezcaua</i> , 1007, 27; <i>Ezchaua</i> , 1007, 27.
Ezkirotz	<i>Ezquiros</i> , 64 atz.; <i>Ezquiros</i> , 67 atz. ³⁶ .	<i>Ezquiros</i> , 1144, 149; 1146, 150; 1155, 153; 1165, 155 atz.; 1188, 157.	<i>Ezquiros</i> , 1071, 50.
Fitero	<i>Hitero</i> , 87, 101 atz., 107 atz., <i>Ytero</i> 110 ³⁷ .		

³⁴ “... el Monasterio de san Millan de la Cogolla en la Rioxa, que fue de los reyes de Nauarra, no fue asolado por los Moros, ni tampoco el de san Salvador de Leyre, que esta en este Reyno [...]”.

³⁵ Latinezko testuaten beti *Erro* edota *Vallis de Erro* ageri da. Gure aldetik, Nafarroako Artxibo Nagusian XVI. mendean dokumentatutako *Erroibar* euskal forma jaso ahal izan dugu: “Joanes gil de roybar, mulatero” (Doneztebeko Notarioen Protokoloak 39, 1587. urtea).

³⁶ Bai latinezko testuek bai gaztelaniazko erabilerak nahiko garbi adierazten dute oinarria *Ezquir-* dela, eta ez Belaskok (1996: 184) ematen duen *Esquir-*.

³⁷ Lekuko hauek adierazten dute herri izen honek hasierako *f* ez duela beti gorde.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Gares	<i>Puente de la Reyna</i> , 97 atz.; <i>Cares</i> (sic), 97 ³⁸ ; <i>la Puente de la Reyna</i> , 100 atz., 101, 102 atz., 103 atz., 140 atz.; <i>la Puente</i> 101.		
Gasteiz	<i>Vitoria</i> , 21 ³⁹ , 86, 87, 166 atz.; <i>Victoria</i> 85, 85 atz., 86, 100.		
Genevilla	<i>Vgeneuilla</i> , 109 ⁴⁰ .		<i>Ussaniuila</i> , 1238, 511.
Gipuzkoa	<i>Guipuzcoa</i> , 16 atz., 24 atz., 64, 88, 95, 133 atz., 140 atz., 165; <i>Prouincia</i> 138 ⁴¹ .	<i>Ypuzcoa</i> , 1007, 30.	<i>Ypuçcoa</i> , 1007, 28; <i>Ypuza</i> , 1085, 63; <i>Ypuzcoa</i> , 1143, 215; 1237, 505; <i>Ipuçcoa</i> , 1149, 230; <i>Ypusca</i> , 1150, 235.

³⁸ (Doña Iuana, hija de don Henrique, hermano de Teobaldo) “... fue singular Princessa, fundo en Paris el Collegio de los Nauarros, dotandolo con magnificencia Real; reedifico la villa de Puente la Reyna llamada antes Cares (sic) riberas del rio Arga [...] falleció en 1305. Sepultaron su cuerpo en el monasterio de San Francisco de Paris”. Zalantzarik ez dago, Sandovalék erraten duen “llamada antes” hori hagitz antzinakoa zela, kontuan izanik behintzat R. Zierbidek 1244. urtean Erriberrin jasotako *C. J. Guaresco* aipua (Salaberri 2003: 125).

³⁹ “... la ciudad de Vitoria, que por auerla alcançado muy señalada (victoria) en sus campos, le dio este nombre [...] (el rey don Sancho Garcia)”.

⁴⁰ *Vgenevilla* dakar Sandovalék XVII. mendean, *Uxanavilla* zaharraren eta *Genevilla* berriaren tarteko forma.

⁴¹ “... ay diez y nueue Arciprestazgos, ò partidos, que son los que siguen. La ciudad de Pamplona. La ciudad de Estella. El Arciprestazgo de la Prouincia. El de la Cuenca de Pamplona. El de la Valdonsella en Aragon. El de la Ribera [...]”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Goiatz		<i>Goyaz</i> , 1007, 30 ⁴² .	<i>Goyaz</i> , 1007, 28 ⁴³ .
Goizueta			<i>Goizuueta</i> , 1186-1193, 327 ⁴⁴ .
Guardia	<i>la Guardia</i> , 87 ⁴⁵ , 90 atz. ⁴⁶ , 90 atz. ⁴⁷ , 108 atz.; <i>Laguardia</i> , 107.	<i>La Garda</i> , 1144, 148 atz.	<i>Laguardiam</i> , 1214, 420.
Gulia		<i>Aulia</i> (sic) ⁴⁸ , 1007, 30.	<i>Gulia</i> , 1007, 28; <i>Bulia</i> , 1105, 120.
Ibañeta	<i>Euañeta</i> , 60 ⁴⁹ ; <i>Ybañeta</i> , 78 atz. ⁵⁰ , 79.		

⁴² Honek erakusten du *Goiatz* izenaren antzinatasuna. Jakina denez, azkenaldi honetan, herri honek Bidaniarekin bat egin du, eta elkarte berriri *Bidania-Goiatz* jarri beharrean *Bidegoian* izen asmatua jarri diote izen ofizialtzat, jatorrizko *Bidania* eta *Goiatz* izen historikoak alde batera utziz.

⁴³ Testuan *Goayz* (sic) dakar. Ematen du akatsa dela; gainera, liburuaren aurkibidean *Goyaz* baitator.

⁴⁴ Sandovalek aipatzen ez badu ere, egoki iruditu zaigu Goñiren testigantza urteen aipamenarekin jasotzea.

⁴⁵ (El rey don Sancho) “... en la Rioxa poblò la Guardia [...]”. Ikus Errioxa sarreran “la Rioxa” eta “Rioxa”, Gares sarreran “la Puente de la Reyna” eta “Puente de la Reyna” eta Lapoblacion sarreran “Población”. Ikus, halaber, herri honen *Guardia* euskal izenaz Euskaltzaindiaren irizpena (*Euskeria* 48, 41-43).

⁴⁶ “... Lupo de la Guardia [...]”. 1214. urteko aipua.

⁴⁷ “Ego Lupus de la Guardia Prior pro toto conuentu hoc signum facio”. 1214. urteko aipua.

⁴⁸ Pentsatzekoa da hasierako *A*- Sandovalek egindako irakurketa okerra izaten ahal dela, kontuan hartzekoa baita urte bereko lekukotasunak eta ezagutzen den zaharrenak *G*- duela hasieran. Goñiren lekukotasun honek alde batera uzten du 1105eko izenean oinarrituta “el nombre antiguo comenzaba por *b*” baieztapena (Belasko 1996: 222).

⁴⁹ “... el monasterio de San Salvador de Euañeta en el puerto, Auria, que es encima de Roncesualles”. Antza denez, hasierako *E*- irakurketa okerra da.

⁵⁰ “... el puerto de San Salvador de Ybañeta, camino de Santiago, donde segun la comun opinion, percieron infinitos Franceses en tiempo de Carlos Magno, y segun la tradicion de aquellas montañas, percian los peregrinos ahogados con la ventisca de las nieves; y otros despedaçados de infinitos lobos, que criaua la tierra”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Ibero		<i>Iuero</i> , 1137, 68 ⁵¹ .	<i>Iuero</i> , 1137, 186.
Ibiriku		<i>Ibericu</i> , 1143, 147 atz. ⁵² ; <i>Ibiricu</i> , 1144, 149; 1155, 153; <i>Iuiricu</i> , 1146, 150.	<i>Iuiricu</i> , 1144, 219; 1194, 350; <i>Ibiricu</i> , 1237, 504; <i>Yuiricu</i> , 1209, 407; 1202, 391.
Imotz		<i>Ymaoz</i> , 1007, 30 ⁵³ .	<i>Imaoç</i> , 1007, 30.
Ingalaterra	<i>Ingalaterra</i> (sic), 85, 89 atz. (3 aldiz), 97 (2 aldiz), 102 atz., 127 ⁵⁴ .	<i>Inglaterra</i> , 109 atz.	

⁵¹ “... Ecclesias de Iuero eiusdem supradictis parentibus meis [...]”.

⁵² Sandovalak ematen duen *Ibericu* lekukotasunik zaharrena bada ere, *-e-* duen forma bakarra da, segur aski oker jasoa.

⁵³ Bi egileek testu bera transkribatzen dute; grafian ez datoz bat, baina forman bai: *Imaoz*. Guk dakigula, hau da izen honen lekukotasunik zaharrena.

⁵⁴ Kontuan izatekoa da Sandovalak, latinezko testuan ez bezala, gaztelaniaz ari denean aldiro *Ingalaterra* forma erabiltzen duela, erraterako: “Doña Berenguela como su aguela, fue Reyna de Ingalaterra [...]”. (85); “El Conde de Champaña y Par de Francia, fue uno de los mayores señores, y mas llegados a las casas Reales de Francia y Ingalaterra”. (89 atz.); “La Infanta doña Ioana, que primero fue Duquesa de Bretaña, y despues Reyna de Ingalaterra”. (102 atz.); “... vemos Iglesias y monesterios asolados y profanados como en Ingalaterra [...]”. (127).

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Iruñea	<i>Iruñea</i> , 1 atz. ⁵⁵ , 2 atz. ⁵⁶ , 24 atz., 60, 164 ⁵⁷ ; <i>Irunea</i> , 63 ⁵⁸ , 77 ⁵⁹ .	<i>Iruniensis</i> Episcopus, 1014, 33 atz.; <i>Iruniensis</i> sedis, 1022, 35; <i>Iruniensem</i> sedem, 1023, 36 atz.; 1070, 39; Ecclesia <i>Iruniensis</i> 37; sedi <i>Iruniensi</i> , 1070, 39 atz.; in <i>Irunia</i> , 1071, 64 atz.; in <i>Irunea</i> , 1071, 65; 1075, 66 atz.; 1111, 77; <i>Iruniensem</i> Ecclesiam, 1137, 68 atz.; in <i>Iruniense</i> sede, 1087, 74.	⁶⁰
Iurreta	<i>Ihurrueta</i> , 66 atz. ⁶¹ .		

⁵⁵ “Tales fueron los Obispos de Pamplona (antigua Iruñea, antes de Pompeyo, ò de los Pompeyones) que desde el tiempos de los Apostoles hasta oy dia, se han continuado”.

⁵⁶ “Llamase Pamplona, en lengua Vascongada desta tierra, Iruñea, que quiere dezir buena villa, que siendo tan diferente del nombre de Pamplona. Y cierto que el Vascuence es la lengua original de los antiquissimos Españoles pobladores. Es argumento, que antes de Pamplona es Iruñea: y que no fueron Pompeyo, ni los Pompeyones, los que hecharon las piedras fundamentales desta Ciudad. Aumentola Pompeyo, ò cercola, ò hizo sobre lo hecho, alguna fortificacion, y obra nueua, con que se le añadió el nombre de Pamplona”.

⁵⁷ “Iruñea, villa buena, Pamplona llamada assi antes de Pompeyo [...]”.

⁵⁸ “... Era 1104, 1105, 1106. En todas las quales ay memoria del Obispo don Ioan, llamandose en vnas de Pamplona, en otras de Irunea [...]”.

⁵⁹ Kontuan hartzekoa da Sandovalék Nafarroako hiriburuaren euskal ordaina aipatzen duen aldiro *Iruñea* edo *Irunea* erabiltzen duela, inoiz ez **Iruña*”.

⁶⁰ Goñi Gaztanbidek jasotako latinezko testuetan ugari dira *Iruniensis*, *Irunia*, *Iruina*, *Iruinia* aipuak.

⁶¹ “... vn Monasterio de S. Martin en Vizcaya, cerca de Durango, en el lugar de *Ihurrueta* [...]”. Sandovalék 1072. urteko gertaerak 1614an gaztelaniaz kontatzean *Ihurrueta* erabili zuen.

Erreferentziatzko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Izarbeibar		<i>valle de Itçarbe</i> , 1084, 72 atz. ⁶² .	
Izurum (Ikus Donostia)	<i>Hizurum</i> , 21 ⁶³ , 32; <i>Yçurum</i> , 32 ⁶⁴ .	<i>Yçurum</i> , 1014, 33.	<i>Içurun</i> , 1014, 25 ⁶⁵ .
Jaitz		<i>Ianiz</i> , 1097, 76 ⁶⁶ ; <i>Ianit</i> (sic), 1100, 146 atz. ⁶⁷ ; <i>Iätz</i> (sic), 1144, 149.	
Jaunsarats		<i>Iansarras</i> , 1007, 30 ⁶⁸ .	<i>Jansarass</i> , 1007, 28.

⁶² “... cum valle de Orba et Zabalcetam, Ecclesiamque de Ouanos, cum valle de Itçarbe [...]”. -tz- afrikatuarekin ageri den lekuko bakarra baldin bada ere, pentsarazten du, Nafarroako *Itza*, *Itzagaondoa* eta abarretan bezala, ibar honen izen egokia ez ote litzatekeen *Itzarbeibar* izanen, *Izarbeibar* ordez.

⁶³ “... la villa de S. Sebastian de Guipuzcoa (conquistada por Sancho Garcia), y le dio los fueros que hoy dia tiene, y el nombre en lengua Cantabra de Hizurum, que quiere decir tres agujeros, por las tres entradas que esta villa tiene para el mar. Tambien hizo vn fuerte Castillo en la Guipuzcoa llamado Arrasate, sobre el lugar que agora llaman Mondragon, y en aquel tiempo, era esta fuerça inexpugnable”.

⁶⁴ “... el Monasterio de S. Sebastian, que estaua fundado cerca de Hernani, con mas la villa de Yçurum, y las Iglesias de Santa Maria, y S. Vicente [...] y el monasterio es de monjas, riberas del mar, y le llaman San Sebastian el viejo, a diferencia de la villa tan illustre y principal, y tan conocida en la Prouincia de Guipuzcoa, llamada San Sebastian, que esta dos tiros de vallesta del Monasterio”.

⁶⁵ “... in finibus Ernani ad litus maris monasterium unum quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochiam suam et illam uillam que antiqui dicebant Içurun cum ecclesiis suis, scilicet beate Marie et sancti martiris Vincentii [...]”.

⁶⁶ “... Salinis de Ianiz [...]”.

⁶⁷ “Villam de Ianit cum suis Salinis [...]”.

⁶⁸ Sandoval eta Goñi Gaztanbide ez datoz bat transkripzioan. Nolanahi ere, biak bat datoz hasierarekin: *Jan-*, ez *Jaun-*.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Lapoblación	<i>Poblacion</i> , 109 ⁶⁹ .		
Larrea	<i>Larrea</i> , 17 atz. ⁷⁰ .		
Larunbe	<i>Larumbe</i> , 19.	<i>Olarumbe</i> , 1007, 30 ⁷¹ .	<i>Olarumbe</i> , 1007, 28; <i>Larumbea</i> , 1105, 120.
Latsaga	<i>Laxaga</i> , 107 atz. ⁷² , 110.		
Leitza		<i>Leytza</i> , 1007, 30 ⁷³ .	<i>Leitza</i> , 1007, 28.
Leotz		<i>Leioz</i> , 1144, 148 atz.; <i>Lioz</i> , 1146, 150; 1155, 153 ⁷⁴ .	<i>Leioz</i> , 1144, 218; <i>Lioz</i> , 1156, 252; 1185, 322.

⁶⁹ Karlos Vianako printzeak 1423an egindakoaz ari dela, honela dio: “Incorporó con Viana debaxo deste titulo las villas delaGuardia, S. Vicente, Bernedo, Aguilar, Vgeneuilla, Poblacion, S. Pedro, Cabredo, Val de Campeço, Castillo de Marañon, Toro, Errara y Buradon, y otros lugares”. Kontuan izatekoa da *Poblacion* soilik ageri dela, artikulurik gabe, eta *laGuardia* herri izenak artikulua badarama ere, letra larria *Guardia* izenak duela, ez artikulua. Ikus *Guardia* sarrera.

⁷⁰ Yñigo Ximenez de Arista erregeak 839. urtean Ignacio de la Lane alferrezari egindako mesedea aipatzen du Sandovalak: “Hizole merced de vn valle, y montes que puso por nombre Larrea, y dize estan a la entrada de Alaba, desde el rio a la parte Mediodia, hasta la montaña de Guipuzcoa llamada Aruamendi (sic), con vna casa fuerte que el Rey alli auia fundado llamada la Torre”.

⁷¹ Sandoval eta Goñi bat datoz 1007ko testuaren transkripzioan: *Olarumbe* diote biek, eta guk dakigula, hau da herri izen honen lekukotasunik zaharrena.

⁷² “... don Pedro señor de Laxaga [...]” dio 1390. urteko berriak ematean.

⁷³ 1007ko dokumentuaren transkripzioan, bai Sandovalak bai Goñik egun ahoskatzen den *-tz-* afrikatuarekin jaso dute herri izen hau.

⁷⁴ Bi egile hauek jasotako dokumentuetan lekukotasun gehiago du *Lioz* formak.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Leza	<i>Leza</i> , 66, 69 atz.	<i>Leça</i> , 1077, 61 atz. ⁷⁵ ; <i>Lezna</i> , 1097, 75 atz. ⁷⁶ .	
Lizarra	<i>Estella</i> , 77 atz. ⁷⁷ , 100 atz. ⁷⁸ .	<i>Liçarrara</i> , 1044, 70; <i>Stella</i> , 1137, 68 atz., 1145, 82 atz.; <i>Liçarraga</i> , 1144, 148 atz. ⁷⁹ ; 1146, 150; 1155, 153; <i>Liçarra</i> , 1187, 85 atz. ⁸⁰ .	
Los Arcos	Villa de <i>los Arcos</i> , 6; <i>Vranci</i> (sic), 66 atz. ⁸¹ .	<i>Vrranci</i> , 1007, 30; <i>Arcus</i> , 1143, 147 atz.; 1144, 149; <i>Archos</i> , 1146, 150; 1165, 155 atz.; <i>Arcos</i> , 1155, 153.	<i>Vrranci</i> , 1007, 28; 1075, 55.

⁷⁵ “... domino Ranimiro meo filio, Leça cum suas villas, Soto et Ciellas Alficero et Torreciella in Cambero [...]”.

⁷⁶ “... Sanctam Mariam de Lezna [...]”.

⁷⁷ “... y en el año de 1128 començò a poblarse la villa de Estella, que agora es ciudad de este Reyno [...]”.

⁷⁸ “... la ciudad de Estella es Estrella en la tierra, por la apacible ribera del rio, que dentro de ella corre: por la amenidad y hermosura de los campos que la cercan”.

⁷⁹ “... Sancto Dominico de Liçarraga, cum tota decimatione suae parroquiae [...]”.

⁸⁰ Santxo Gartzia erregeak Iratxe monasterioari emaitza hau egin zion: “Illam Ecclesiam Sancti Ioannis, quam facio fieri à praedictis monachis in populatione de Stella, quam populauit ultra pontem Sancti Martini iuxta villam de Liçarra: et iuxta Rupem Sancti Michaelis in Parrale meo proprio”.

⁸¹ “... estando en Najara el mesmo Rey (don Sancho) y Reyna Placencia, concedieron vna carta de libertad a los pobladores de Vranci [...]”. Patxi Ondarrak “Los Arcos-en euskal izena *Urantzia* ote?” artikuluan (*Euskera* 34, 723-724), hiru lekuko ematen ditu: 1) *Urantzia*. *Codex Calistinus*-en datoren “Urantia que dicitur Arcus”, 2) *Vrranci*, Prudencio Sandovalen 1614. urtean idatzitako *Catálogo de los obispos que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona...* liburuaren 30. orrialdean transkribatzen duen Iruñeko Katedraleko 1007ko latinezko testua (urte batzuk geroago Goñi Gaztanbidek (1997: 26-29) argitaratutako aipu bera), 3) *Urranzi*, Joseph Moret-ek *Los anales del reyno de Navarra...* liburuan dakarrena. Baina Sandovalen

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Mónaco	<i>Monago</i> , 111 ⁸² .		
Monjardín (Ikus Santesteban de la Solana)	<i>Monjardin</i> , 11 ⁸³ , 69 atz., 166 atz.		
Nafarroa Beherea	<i>Baxa Nauarra</i> , 87 atz.		
Nagitz		<i>Iaguilz</i> , 1007, 29 ⁸⁴ .	<i>Naguilz</i> , 1007, 27.
Naiara ⁸⁵	<i>Najara</i> , 5, 11, 26, 43, 43 atz., 44, 45, 54 atz., 60, 64 atz., 65, 71 atz., 109 atz., 137; <i>Nagera</i> , 21 atz., 23 atz., 24 atz., 25, 25 atz., 31 atz., 32, 43, 45, 60, 63, 68 atz., 70 atz., 71, 80, 85 atz., 164, etab.	<i>Najarensis</i> , 1023, 38; 1044, 70; <i>Naielensis</i> Episcopus, 1028, 43; apud <i>Nayaram</i> , 1052, 47 atz.; <i>Najara</i> 1052, 48; 1077, 61 atz.; <i>Najara</i> , 1077, 61; 1060, 62; <i>Nayera</i> , 1077, 61 atz.; <i>Nayalensis</i> , 1060, 62.	

liburua aztertzean, Ondarrak nonbait ez zuen jarraitu 30. orrialdetik aitzina, ez baitzuen jaso 66. orrian datorren *Vranci* forma. Hau da, hain zuzen ere, Sandovalak gaztelaniaz azaltzen duen testua Sancho el Noble eta Placencia izeneko errege-erreginek XI. mendean egin zuten zenbait emaitza aipatzeko. Uste dugu lekukotasun hau ez dela garrantzirik gabeko datua, batik bat *Urantzia* izena “unus testis” dela argudiatuz alde batera utzi dutenen aitzinean.

⁸² (Don Miguel de Zalba, Obispo de Pamplona) “Muriò en vn lugar llamado Monago a 24 de Agosto, año 1406. Sepultaronle en vn Monasterio de San Francisco de Niza [...]”. Gaur egungo Mónaco hiriaz ari da.

⁸³ “... el Castillo de Santisteuan, que agora llaman Monjardin [...]”.

⁸⁴ Pentsatzekoa da hasierako *I*- Sandovalak egindako irakurketa okerra izanen dela. *Nagitz* da gaur egun bizirik dagoen forma. *Nágitz*, *Nagítz* *aldétik*, *Nágitz aldétik* bildu zuen Koldo Artolak (1985: 109). *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* lanean, ordea, *Nagiz* eta *Nagizaldea* dira jasotako formak (LIX: 38, 70, 86-87). Dena dela, Ezkabarteko toponimo honen bi lekukotasun zaharrenetan *-gilz* dugu amaieran.

⁸⁵ Latinezko testuetan modu anitzetara idatzia ageri da, baina gaztelaniazko aipu ugariak bi forma hauetara mugatzen dira: *Najara* eta *Nagera*.

Erreferentziatzko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Najerilla	Rio <i>Najarilla</i> (sic), 45.		
Navarrería	<i>Nauarrería</i> , 4 atz. ⁸⁶ , 63 ⁸⁷ , 73, 88 atz., 93 atz., 95, 99 atz., 104, 110, 165, <i>Nouarrería</i> , 64 ⁸⁸ .		

⁸⁶ “Llamose la primera y mayor poblacion della (de Pamplona) Nauarrería, de donde à mi entender tuuo el reyno nombre de Nauarra [...]”.

⁸⁷ “No se hallara escritura antigua, donde esta Prouincia se llame Nauarra, saluo la de don Iñigo de la Lane (don Iñigo Arista Rey de Nauarra zela dioena), y esta de la Era 1103, donde don Ioan se llama Obispo de los Nauarros, es vna de las primeras en que hallo este nombre. Se lo que adiuinando dizen algunos, sin acertar, y me parece, que como en muchas partes se llaman *Conuento Pampilonensium*, pueblos Pampilonenses, dando esta ciudad, como cabeça, nombre à toda la tierra, que assi del varrio, y primera y principal poblacion que en ella huuo, donde siempre estuuo la Iglesia Cathedral y se llamò Nauarrería, que de aqui tambien se llamaron Nauarros, y la Prouincia sugeta à Pamplona Nauarra. Y he visto papeles antiguos de hombres graues de este Reyno que dizen, que los primeros que poblaron esta tierra, entraron por los Pyrreos, y baxando dellos, llegaron a este suelo donde esta Pamplona y lebantaron vn altar a Dios, donde le ofrecieron sacrificio, dandole gracias por auerles dado tan buena tierra, y que esto fue en el sitio de la Nauarrería”. Eta honela azaltzen du Navarrería izenaren etimologia: “... por auer sido el primer altar diuino la llamaron *Noua Ara*, y corrompiendose el vocablo se dixo Nauarra, y Nauarrería la poblacion, y della toda esta Prouincia Nauarra [...] *Noua Ara* seria la parte mas alta, donde agora està la Iglesia Cathedral, y aquella que en tiempo de los Gentiles fue Ara dedicada à los Demonios, los Apostoles que aqui vinieron à predicar la Fe, la dedicaron à Dios”.

⁸⁸ “... en la lengua latina, que ya se hablaua, la llamaron *Noua Ara*, y en la Cantabra natural, corrompiendo el nombre Latino *Nouarrería*, por auerse hecho otras Iglesias, y gran población en el montecillo donde esta la Cathedral; como en Athenas tenian altar dedicado a Dios no conocido, así por la nouedad de la religion, y Dios tan diferente de los que los barbaros Gentiles aqui adoraban, llamaron nueuo el altar, nueuo el Dios, nueuo el sacrificio que se le hazia. Lo que me haze dificultad es, no hallar, el nombre de Nauarra [...] hasta estos tiempos en que el Obispo don Iuan se llama *Nauarorum Rector*, y de aqui adelante Prouincia de Nauarra, y Reyes de Nauarra, que en la escritura de Iñigo de la Lane, que se llama Rey de Nauarra don Iñigo Arista [...]”. Ikus “Don Iuan Obispo de Pamplona”, 1050-1071 urteen bitartean. (Sandoval: 62 atz.-64 atz.).

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Obanos		<i>Ouanos</i> , 1084, 72 atz., 74 atz.; 1155, 153; <i>Ouans</i> , 1100, 144; 1146, 150; 1188, 157; <i>Obanos</i> , 1100, 145 atz.; 1143, 147 atz.; 1165, 155 atz.; <i>Obans</i> , 1100, 146 atz.	<i>Ouanis</i> , 1086-1115, 65; <i>Ouanos</i> , 1087, 68; 1159, 255; <i>Ouans</i> , 1097, 80; 1100, 102; 1137, 187; 1144, 218; <i>Ouanus</i> , 1205, 396.
Ojacastro	<i>Ojacastro</i> , 54 atz.	<i>Olía Castro</i> , 1052, 48 atz.	
Orbaibar	<i>Baldorba</i> , 138 ⁸⁹ .	<i>valle de Orba</i> , 1084, 72 atz ⁹⁰ .	<i>Orbaiuar</i> , 1178, 310 ⁹¹ ; 1179, 359.
Ostitz	<i>Oztiz</i> , 118 ⁹² .	<i>Ostiz</i> , 1087, 74 atz.,	<i>Ostiz</i> , 1087, 68; 1090, 71; 1100, 100; 1177, 308.
Población	<i>la Poblacion</i> , 110 ⁹³ .		

⁸⁹ “El (arciprestazgo) de la Baldorba”.

⁹⁰ “Dedi quoque Ecclesiam de Tafallia, sanctumque Romanum, cum valle de Orba et Zabalcetam, Ecclesiamque de Ouanos, cum valle de Itçarbe [...]”.

⁹¹ (Ecclesia) “... de Sancto Thoma de Orbaiuar cum villa Sansomain”.

⁹² “... Lope de Oztiz Prior de Velate [...]”. XVII. mendean *Oztiz* formaren erabilera egiaztatzen du.

⁹³ “... los de las tres partes de Pamplona, Nauarreria, el Burgo y la Población, que como se (sic) fueran tres pueblos diferentes estos tres barrios tenia cada vno su Alcalde y Jurados distintos, hasta que este Rey don Carlos (III, el Noble) hizo a todos vno”. Ikusten ahal den bezala, *la Población* izendapena Iruñeko auzoaz ari denean erabiltzen du, gaur egungo *Lapoblación* herriari, ordea, *Población* deitzen dio.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
San Adrián		<i>Almuneçera</i> , 1144, 149; <i>Almonaçer</i> , 1146, 150; <i>Almonozter</i> , 1155, 153; 1165, 155 atz.; <i>Sancto Adriano de Palma</i> , 1144, 149; 1146, 150; 1155, 153.	<i>Palma</i> , 1084, 61 ⁹⁴ ; <i>Almunizer</i> , 1110, 131 ⁹⁵ .
Sanmartinzar ⁹⁶	<i>San Martin de Zaharra</i> , 55.	<i>Sancto Martino de Zaharra</i> , 1052, 48 atz.	
Santesteban de la Solana / Solana (Ikus Monjardín)	<i>Santisteban</i> , 69 atz. ⁹⁷ ; <i>Solana</i> , 103 ⁹⁸ ; <i>Solana</i> , 126 atz. ⁹⁹ ; <i>Solana</i> , 138 ¹⁰⁰ .	Castro <i>S. Estephani</i> (XI), 69 atz.; <i>Castrum sancti Stephani</i> , 1097, 74 atz.; 1146, 150; 1155, 153.	<i>Castrum Sancti Stephani de Mont Iardin</i> , 1143, 217; <i>Castiello de Sant Esteuan de Mont Jardin</i> , 1223, 456.

⁹⁴ “... ecclesia Sancti Adriani martyris, que est sita in ripa que dicitur Palma iuxta Ibero flumine [...]”.

⁹⁵ “... facio testamentum tibi Iuliano de Almunizer, monasterii Sancti Adriani de Palma [...] et cum omni hereditate de Almunicer [...]”.

⁹⁶ Sanmartinzar Trebiñuko Tobera kuadrillako herria da. *Sancto Martino de Zaharra* 1025, *Sancti Martini de Zaharra* 1076, *Santo Martino de Zaharra* 1193. Bertze zenbait dokumentazio zaharretan ere ageri da (Sanchez: 177). Jatorri argikoa bada ere, Elena Martínez de Madinak Henrike Knörr zenaren 1970 hamarkadako artikulu bat gogora ekarri azaldu digun bezala, urte haietan, herri etimologia aplikatuz nonbait, herri honi *San Martin del Zar* forma erabat asmatua jarri zitzaion eta, gezurra badirudi ere, burugabeko izendapen hori oraindik ere egiaztatzen ahal da zenbait web gunetan.

⁹⁷ (Tuvo el Infante don Ramiro) “... el Castillo de Santisteban que agora llaman Monjardin”.

⁹⁸ “... don Ioan Ramirez de Arellano, señor de Solana y Arellano [...]”.

⁹⁹ “... el Arciprestado (sic) de la Solana [...]”.

¹⁰⁰ “El (arciprestazgo) de la Solana”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Sonsierra	<i>Sosierra</i> (sic), 54 atz. ¹⁰¹ .	<i>Subserra</i> , 1052, 48 ¹⁰² .	
Toloño	<i>Toloneo</i> , 54 atz. ¹⁰³ .	<i>Tolonei</i> , 1052, 48 ¹⁰⁴ .	
Tutera ¹⁰⁵	<i>Tudela</i> , 78, 78 atz., 80, 81, 81 atz., 82 atz., 85 atz., 87, 88 atz., 89, 91 atz., 92, 93 atz. 107, 108 atz., etab.	<i>Tutela</i> , 1052, 58; 1137, 68 atz.; 1118, 78 ¹⁰⁶ ; 1143, 147 atz.; 1165, 155 atz.; <i>Tutella</i> , 1146, 150; 1155, 153; apud <i>Tutelam</i> , 1155, 152.	

¹⁰¹ “En Sosierra, san Roman, con todo lo que le pertenece”. Hala dio Sandovalak Don Garcia izeneko erregearen 1052. urteko testamentuaren itzulpenean, latinez *Subserra* eta gaztelaniaz *Sosierra*, egun *Sonsierra* dena.

¹⁰² “In Subserra Sanctum Romanum cum omni sua pertinentia”.

¹⁰³ “... la quarta parte del Toloneo del mercado de Najara [...]”.

¹⁰⁴ “... quartam partem Tolonei ex mercato eiusdem Nayeræ [...]”.

¹⁰⁵ Sandovalak gaztelaniaz beti *Tudela* aipatzen du, eta latinez, Goñik bezala, *Tutela* eta *Tutella*. Jakina da hiri honen euskal forma *Tutera* dela. Orain arte euskarazko izenaren lekukotasun zaharrenak XVII. mendekoak baldin baziren ere, hots, *Tutera camioa* (1614ko Ezkizozko toponimoa) eta *Tuterarena* (1637ko Iturengo etxea), azkenaldi honetan XVI. mendeko lekuko bat ere aurkitu ahal izan dugu: “joanes de çarandia alias tutera”, hots, Tuterarena etxeko jabeari zegokion aipamena hain zuzen, 1595ean eta 1604an ageri dena. (Nafarroako Artxibo Nagusiko Doneztebeko Protokoloetan jasoa lehenbizikoa eta Prozesuak deitutako saileko 13.368 zenbakia daraman prozesuan bigarrena).

¹⁰⁶ “... In obsidione [...] Tutelæ [...]”.

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Uharte	<i>Hugarte</i> , 129 atz. ¹⁰⁷ .	<i>Uhart</i> , 1007, 30 atz.; <i>Huarte</i> ¹⁰⁸ , 1070, 41 atz. ¹⁰⁹ ; 1143, 147 atz.; <i>Huart</i> , (XI), 58; (XI), 70 atz.; 1100, 146 atz.; 1144, 149; 1146, 150; <i>Ufart</i> , 1097, 76 atz.; <i>Uart</i> , 1155, 153; <i>Vardt</i> , 1188, 157; <i>Varch</i> , 1191, 160.	¹¹⁰
Ultzama		<i>Uzama</i> , 1087, 76 atz. ¹¹¹ .	<i>Utzama</i> , 1087, 70.

¹⁰⁷ (El obispo don Diego Ramirez, el año 1562) “... otro dia despues de Pentecostes al amanecer, partiò de Hugarte para Trento, donde entro atrauesando por Francia, y se hallò en el Concilio, asistiendo hasta quatro de Diziembre, del año 1563, en que se acabò”. Kontuan hartzekoa da, latinezko testu guztietan ez bezala, Sandovalak gaztelaniaz ematen duen herri honen aipamen bakarrean -g- tartekatzen duela, euskaraz nahiko arrunta izanen litzatekeen forma.

¹⁰⁸ “... Fortum Sanz de Huarte [...]”.

¹⁰⁹ “... Fortun Sanz de Huarte [...]”. *de Huarte* jartzen du latinezko testuaren transkripzioan. Seguru gaztelaniara jo zuela konturatu gabe, gainerako guztien *in Uhart*, *in Sos*, etab. ageri delako. Gainera, Goñik testu beraren transkripzioan *in Vharte* dio (49. or.).

¹¹⁰ Goñiren liburuan ere Sandovalenean ageri diren forma berak azaltzen dira, bai eta bertze hauek ere: *Huart*, *Uarte*, *Vharte*, *Varte*, *Huartth* eta *Vatth*.

¹¹¹ XI. mendeko testu honen transkripzioa egitean, Sandovalak *Uzama* jaso zuen eta Goñik *Utzama*. XVI. mende arte ere ageri da *Uzama* forma, nahiz eta *Utzama* nagusitzen joan zen. Erraterako, Nafarroako Artxibo Nagusian Patxi Salaberrik *Ucama larrea* jaso zuen 1537. urteko ageri batean (Atarrabiako Protokoloak 1, 22) eta *Valdeuçama* neuk 1548. urtekoan (Doneztebeko Protokoloak, 19).

Erreferentziako izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Undués	<i>Undues</i> , 29 atz.	<i>Unduesse</i> , 1007, 29 atz.	<i>Vnduesse</i> , 1007, 28; <i>Vndues</i> , 1197, 359.
Usun	<i>Usum</i> , 11 ¹¹² ; <i>S. Pedro de Vsum</i> , 17 atz., 127 atz., 165; <i>san Pedro y san Pablo de Usum</i> , 23; <i>san Pedro de Aufon</i> , que es <i>Vssum</i> 23; <i>Vssum</i> 114.	<i>Ausonii</i> , 934, 23 ¹¹³ ; <i>Ausoni</i> , 1007, 29 atz.; <i>Vssum</i> , 1007, 30 atz.; <i>Ossum</i> , 1214, 90 atz.; <i>Vsum</i> , 1144, 149; de <i>Euson</i> , 1146, 150; 1155, 153; 1188, 157; <i>Osun</i> , 1191, 160.	<i>Ausoni</i> , 924, 21 ¹¹⁴ ; <i>Usun</i> , 1144, 219 ¹¹⁵ ; <i>Oson</i> , 1196, 363 ¹¹⁶ .
Uxue	<i>Uxue</i> , 103 atz., 107 atz., 110, 111 atz. ¹¹⁷ .	<i>Vssue</i> , 1137, 68 ¹¹⁸ .	
Zaldiaran	<i>Çaldiaran</i> , 16 atz. ¹¹⁹ .		

¹¹² “... Monesterio de san Pedro y san Pablo de Usum, que agora es Arcidiano desta santa Iglesia” (de Pamplona).

¹¹³ “... iuxta oppidum, quod dicitur Ausonii [...]”.

¹¹⁴ “... in Sancti Petri, qui est iuxta villa que dicitur Ausoni, ubi riuum currit Saresaço, et posuimus ipsum monasterium pro uotiuos [...]”. X. mendeko testuek argi adierazten dute zein den *Usum* toponimoaren jatorrizko forma.

¹¹⁵ “... Sanctum Petrum de Usun cum uilla Leiaburu [...]”.

¹¹⁶ “... archidiaconus Sancti Petri de Oson [...]”.

¹¹⁷ Sandovalék gaztelaniazko testuetan lau aldiz aipatzen du herri honen izena eta denetan *Uxue* forma erabiltzen du, Ejea *Exea* izendatzen duen bezala, jakinik <x> horrek gehienetan gaztelaniazko *jota* adierazten duela, baina euskarazko *ixa* egoten ahal dela erabat baztertu gabe.

¹¹⁸ Goñik transkribatutako testuetan honako lekukotasun hauek datoz: *Ussua*, *Ussue*, *Uxua*, *Uxue*, *Ussoe*.

¹¹⁹ “... el Rey don Garcia Yñiguez hizo dos fuertes, el vno llamado Çaldiaran, en el distrito de Alaba, que señorea todas aquellas llanuras y tierra de Trebiño y otras partes”.

Erreferentziatzko izena	P. Sandoval		J. Goñi Gaztanbide
	Gaztelaniazko testua	Latinezko testua	Latinezko testua
	Izena eta orrialdea (urtea: 1614)	Izena, urtea eta orrialdea	Izena, urtea eta orrialdea
Zamartze		<i>Zamarça</i> (sic), 1097, 74 atz. ¹²⁰ ; 1144, 149; 1155, 153; <i>Camarca</i> , 1143, 147 atz.; 1146, 150.	<i>Zamarze</i> , 1007, 28; <i>Zamarçe</i> , 1031, 35; <i>Zamarza</i> , 1070, 46; 1087, 68; 1167, 267; 1144, 219; <i>Çamarcense</i> , 1074, 51 ¹²¹ ; <i>Samarçe</i> , 1167, 270; 1186, 325; <i>Zamarça</i> , 1192, 345; 1178, 312.
Zaraitzu	<i>Val de Salaçar</i> , 15 atz.; <i>Sarraçaçu</i> , 43 atz. ¹²² ; <i>Valdesalaçar</i> 43 atz., rio <i>Teresaço</i> , 23 ¹²³ .	<i>Sarazo</i> , 1007, 29 atz. ¹²⁴ ; <i>Sareçaço</i> , 1007, 30 ¹²⁵ .	<i>Sarasaço</i> , 1007, 27; <i>Saresaço</i> , 1007, 28.
Ziaurritz	<i>Ciorriz</i> , 22 atz. ¹²⁶ .		<i>Ciaurrice</i> , 1090, 71; <i>Ciaurriz</i> , 1100, 100.
Zuñiga	<i>Stuñiga</i> , <i>Çuñiga</i> , 17 ¹²⁷ .		<i>Stuniga</i> , 1237, 504.

¹²⁰ “... Monasterium de Zamarça cum sua Ecclesia Sancti Michaelis Montis Excelsi [...]”. Orain arte ezagutu diren lekukotasunez gain, kontuan izatekoa da XI. eta XII. mendeetan *-tza* amaiera duten aldakiak ere ageri direla.

¹²¹ “... sancto Mikaele arcangelo de Excelsi et sancte semper uirginis Marie Çamarcense [...]”.

¹²² “... otro (Monasterio) llamado de Yzuça, en Val de Sarraçaçu, que deue ser Valdesalaçar [...]”.

¹²³ “... san Pedro de Auson, que es Vsum, donde corre el rio Teresaço [...]”. Antza denez, latinez ageri den *Saresaço* izenaren irakurketa okerra da, Zaraitzu ibarretik datorren ibaiatz ari baita. Gainera 924. urteko aipuak honela dio: “... in Sancti Petri, qui est iuxta villa que dicitur Ausoni, ubi riuum currit Saresaço, et posuimus ipsum monasterium pro uotiuos [...]” (Goñi: 21).

¹²⁴ “In Longuida monasterium sancti Petri, quod est super ripam cuiusdam fluminis Sarazo [...]”.

¹²⁵ “... tota vallis de Roncal et Sareçaço atque Aezcoa et vallis de Erro [...]”. Sandoval eta Goñi ez datoz bat 1007ko agiriaren transkripzioan; lehenbiziko aipuan batek dakar *Sarazo* eta bertzeak *Sarasaço*, eta bigarreanean *Sareçaço* eta *Saresaço*.

¹²⁶ “... el Monasterio de santa Cruz de Ciorriz, cerca de Pamplona [...]”. Ematen du Sandovallek forma herrikoia jaso izanen zuela herri honen izendapenean.

¹²⁷ “... Stuñiga, o como agora dizen Çuñiga [...]”.

Ondorio gisa

Gorago erran bezala, orain arteko toponimia lanetan ez dugu Sandovalen aipametik aurkitu eta uste dugu badirela kontuan izateko zenbait lekukotasun interesgarri. Laburbilduz, honako hauek aipatuko genituzke:

- Sandovalen latinezko testuetan orain arte ezagutzen ditugun zenbait herriren lekukotsun zaharrenak horrela idatziak: Agoitz (*Aggoyz*, 1016), Beasoain (*Verasoain*, 1044), Izarbeibar (valle de *Itçarbe*, 1084).
- Sandovalen eta Goñiren latinezko testuetan orain arte ezagutzen ditugun zenbait toponimoren lekukotsun zaharrenak horrela idatziak: Antzin (*Ancinz* eta *Ancinç*, 1007), Araitz (*Araynz* eta *Araynç*, 1007), Badoztain (*Vadoyztayn* eta *Badoçtayn*, 1007), Berriozar (*Verrio Zaharr* eta *Berrio Zahar*, 1007), Errezil (*Erretzil*, 1007), Ezkaba (*Ezcaua* nahiz *Ezchaua*, 1007), Gulia (*Gulia*, 1007), Imotz (*Ymaoz* eta *Imaoç*, 1007), Jauntsarats (*Iansarras* eta *Jansarass*, 1007), Leitza (*Leytza* eta *Leitza*, 1007), Larunbe (*Olarumbe*, 1007), Los Arcos (*Urranci*, 1007), Ultzama (*Uzama* eta *Utzama*, 1087), Usun (*Ausonii*, 934 eta *Ausoni*, 924), Zamartze (*-tza* amaierarekin beti Sandovalak eta gehienetan Goñik). Horietaz gain, aipagarriak dira Goñiren lanean azaltzen den *Erriuerria*, 1119an eta *Goizuueta* 1186-1193 urteen tartean kokatua.
- Sandovalak gaztelaniazko testuetan, beraz 1614an, ematen dituen zenbait izenen formak: Burdaspal (*Urdaspal* nahiz *Hurdaspal* beti), Donostia (*Yçurum* nahiz *Hizurum*, hiriaren izen zaharraz ari denean), Ejea (*Exea* aldiro), Ezkirotz (*Ezkiroz*, gaztelaniazko nahiz latinezko testu guztietan), Genevilla (*Vgenevilla*), Ingalaterra (*Ingalaterra* aipu guztietan, nahiz eta latinezkoan Ingalaterra dakarren), Iruñea (*Iruñea* ia beti, eta *Irunea* gainerakoetan), Iurreta (*Ihurrueta*), Naiara (*Najara* anitzetan, *Nagera* gainerakoetan; eta *Najarilla* egungo *Najerilla* ibaia), Los Arcos (*Urandi*, gaztelaniaz ageri den aipu bakarrean), Ostitz (*Oztiz*) Uharte (*Hugarte*, Eguesibarkoaz gaztelaniaz egiten duen aipamen bakarrean), Uxue (*Uxue* aldiro).
- Izen batzuen inguruan ematen dituen testigantza, azalpen eta iradokizunak. Batzuk interesgarriak, hala nola, *Lizarrari* dagokion 1187ko testigantza. Bertze batzuk argigarriak, erraterako, *Atarrabia* xvi. mendean ere Villavako etxetzat jotzen zela dioena, *Gares*, *Arrasate* eta bertze zenbait izenen antzinasunaren egiaztapena, *Iruñea* izenaren antzinasunaz gain bere euskal formaz ematen dituen azalpenak, bai eta *Izurun* Donostiari zegokion euskal izen zaharraz, edota Lizarra eta

Gasteiz hirien erdal izenaren arrazoiak, etab. Bertze zenbait izenen iguruan egiten dituen iradokizun eta etimologia bitxiak edota asmakerien esparrukoak direla erran genezake, erraterako *Navarrerria* auzoaren izenaz egiten duena. Bertzalde, *Vascos* nori deitzen zitzaion ere argi azaltzen du zenbait aldiz, zehazki liburuaren 2¹²⁸, 10 atz., 97 atz.¹²⁹, 137 atz.¹³⁰ eta 163 atz. orrialdeetan, bai eta *Provincia* izendapenaren erabileran Gipuzkoa aipatzeko 138. orrialdean¹³¹.

- Azkenik, lekukotasun zaharrenen aipamenak direla eta, oin-oharretako azalpenetan txertatu ditugu, argigarri direlakoan, gure aldetik artxiboetako ikerketetan izen batzuei buruz jaso berri ditugun lekukoak, hala nola, *Erroibar* 1587an, Ultzamaz (*Valdeuçama* oraindik 1548an), *Tutera* 1595ean eta 1604an.

Bibliografia

- Artola, K., 1985, “Ezkaibarteko euskara. Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan”, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura 4, 95-112, Donostia.
- Belasko, M., 1996, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra, Apellidos navarros*, Iruñea: Pamiela.
- Caja de Ahorros de Navarra, 1990, *Gran Enciclopedia de Navarra* (11 liburuki). Iruñea.

¹²⁸ “Es verdad que algunos autores antiguos quizá no bien informados, como Ptholomeo, Strabon, y otros, llaman Vascos los pueblos circunuevizinos de Pamplona: No lo siendo, sino los que caen à las vertientes de Francia”. Aitzinago (10 atz.) horrela dio: “Y en el año 824, reynando en Francia Luys hijo de Carlo Magno, embiò dos Capitanes, vno llamado Ebluo, y otro el Conde Asinario, ò Aznares, con gran copia de Vascos contra Pamplona [...] Y en el 827 boluiò el mesmo Luys Emperador, rey de Fancia (sic) à embiar otros tres, que fueron, el Abad Isacar, y a Hildibrando, y a Donato Condes, que compusiessen las fronteras de Nauarra, con los Vascos, (como agora vimos las de Alduyde.)”. “Diferencias antiguas entre Nauarros y Vascos, sobre los Pyrneos” (163 atz.).

¹²⁹ “... Don Arnaldo Guillelmo Puyana Prior Petragoricensis Dioecesis, de nacion Vasco...”.

¹³⁰ Tras la conquista... “Todo lo demas que Nauarra solia tener en España, los reyes de Castilla y Aragon se lo quitaron. En Francia y Vascos los Reyes de Francia”.

¹³¹ 1614. urtean Iruñeko apezpikuaren menpe zeuden 19 arziprestazgoetako bat “El Arciprestazgo de la Prouincia” zen.

- Goñi, J., 1987, *Historia de los obispos de Pamplona V*, Iruñea: Nafarroako Gobernua - EUNSA
- , 1997, *Colección diplomática de la catedral de Pamplona 829-1243*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Iñigo, A., 2008, “Ituren. Hiribilduaren lehenbiziko ordenantzak”, *Jose Ignazio Telletxea Idigoras, In Memoriam, BRSBAP LXIV*, 2008-2, 723-741, Donostia.
- Lopez-Mugartza, J. K., 2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Mendaubilduma V, Nafarroako Gobernua — Euskaltzaindia.
- Nafarroako Gobernua, 1992-99, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza I-LIX*, J. M. Jimeno Jurío (zuz.). Iruñea.
- Salaberri, P., 2003, *Euskal Deiturategia: Patronimia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- , 2005, “Origen y significado de la toponimia de Navarra”, *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España. Actas de las primeras Jornadas de Onomástica* (Iruñea, 2003). José Luis Ramírez Sádaba (koord.), 91-127, Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Sánchez, M. N., 1985, *El habla y la toponimia de la Puebla de Arganzón y el Condado de Treviño*, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.